

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA

**Neguko bide garbiketako zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa, prozedura irekiz, eta kontratu hori arautzen duten administrazio klausula berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea**

2016ko irailaren 28an onartu ziren administrazio klausula berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria, Arabako Lautadako Kuadrillako errepede sarearen neguko bide garbiketako zerbitzuaren, kamioi bidezkoaren, kontratua arautzen dutenak; honen bidez lizitazioa iragartzen da, eduki honekin:

1. Erakunde esleitzaila: Arabako Lautadako Kuadrilla
2. Kontratuaren xedea: neguko bide garbiketako zerbitzua ematea
3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era: irekia, arrunta
4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua:
  - A. Elurra kentzeko ekipoa (traktorea + hortza), gidaria barne: 66,37 euro orduko, BEZarekin (60,34 euro orduko, BEZik gabe)
  - B. Elurra kentzeko ekipoa (traktorea + gatza banatzekoa), gidaria barne: 61,37 euro orduko, BEZarekin (55,79 euro orduko, BEZik gabe)
5. Epea: hiru urte, beste urte betez luzatzeko aukerarekin
6. Esleitzeko oinarri izango diren irizpideak: - prezioa: 100 puntu
7. Behin betiko bermea: agirian ezarritakoaren arabera.
8. Agiriak eta argibideak eskuratzea: agiriak Arabako Lautadako Kuadrillaren bulegoetan eskura daitezke, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunaren bezpera arte.
9. Kontratatzen berariazko betekizunak: ekonomia eta finantza kaudimena eta tekniko-profesionala, administrazio klausula berezien agirian jasotzen den eran. Kaudimen tekniko eta profesional osagarria eskatzen da.
10. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea: Arabako Lautadako Kuadrillaren bulegoetan, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, 15 egun naturaleko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.
11. Eskaintzak irekitzea: Arabako Lautadako Kuadrillaren bulegoetan, eguerdiko 12:00etan, eskaintzak aurkezteko azken egunaren hurrengo egun baliodunean (egun hori larunbata bada, hurrengo egun baliodunean); eskaintza postaz bidaltzen bada, Administrazio publikoaren kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean xedatutakoaren arabera jokatu da.
12. Argibide gehiago: ikus administrazio klausulen agirian edo jo Arabako Lautadako Kuadrillara.

13. Iragarkiaren gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

14. Webgune honetan eskura daitezke agiriak: [www.cuadrillasalvatierra.org](http://www.cuadrillasalvatierra.org)

Agurain, 2016ko urriaren 5a

*Lehendakaria*

**ANA M<sup>a</sup> GOROSPE LARREA**